

## Mobiliza gaitezen!

**ORAIN** dela hilabete batzuk, LAB sindikatuak, Hego Euskal Herriko egoera industrial larria berriro ere salatu zuen. Maiztaren Lehenerako egin genuen kanpainak, «Geurea defenda dezagun» lema zuen. Ordu-rako, jadanik Hego Euskal Herria basamortu industrial bihurtzeko arrisku ikaragarrian zegoela nabarmena zen.

Alarmistak, katastrofistak...denetarik deitu ziguten. Baina, gure azterketan ez zegoen inolako katastrofismorik, tamalez. Acenorreko beharlarako birmoldaketa ez ezik, AHVren etorkizun beltza, Papera, Untzigintza, Automobil sektoren egoera kezkarria eta enpresa txiki eta ertainen itoaldiak (Deba Behean, Durangaldean, Ezkeraldean, Irunen, Baztan-Bidasoan, Aiala Haranan...) ere ikusten genituen.

Gaur egungo Sistema Kapitalistaren krisi handia 70. hamarkadan hasi zen eta, bere ezaugarri bereziengatik, Hego Euskal Herriko industria oso minduta geratu zen. Aipatutako krisia hasi bezain laster, gure industriak bereziki zaindu beharra zuen. Frankismo garaian, krisiari ez zitzaion jaramonik egin. UCD eta PSOEren gobernuak ere, gure industriaren arazoak alde batera utzi zituzten. Gainera, 1987ko estatuaren autogolpea gertatu ondoren, PSOEek birmoldaketaren prozesu basati bat hasi zuen.

Prozesu honetan Hego Euskal Herriko industria gorriak ikusten hasi zen. Birmolda-

ketak ehundaka lantegi eta milaka ta milaka lanpostu suntsitu zituen inolako kupidarik gabe eta —hori da txarrena— gure etorkizuna kontutan hartu gabe. Gainera, behin baino gehiagotan, arrazoi tekniko eta ekonomikorik gabe itxi zituzten enpresak —Euskalduna, esate baterako—. Kasu hauetan, arrazoi politikoez azal zitezkeen bakarrik enpresen desagertzea.

Guzti honetan, PSOEek erantzunkizun istoriko ikaragarria du. Baita PNVk ere. Jakin badakigu Gernikako Estatutoak ez daukela kompetentziarik. Baina, Baskongadetako Gobernuari, Madrilgoaren planei trinko aurre egitea zegokion. Ziur gaude, PNVK, Euskalduna Untzigintzari buruzko PSOEren planen aurka aurre egin balu, gaur egun Euskalduna Untzigintzak funtzionatzen jarraituko lukeela.

Zoritxarrez, gure probisioak betetzen hasi dira. Acenorreko bi lantegi —Hernanikoa eta Laudikoa— itxiko dituzte eta 1.690 lanpostu desagertuko dira Euskal Herrian. Neurri hau, Madrilen harturik dago, Baskongadetako Gobenuari konsultatu ere egin gabe. Guzti honek, ez gaitu batere harritzen, benetan. Antolatu berri den Gobernu PSOEk osaturik dago eta alderdi hau da, gure ustetan, euskal langileen etsairik handiena; alde batetik, Hego Euskal Herriak basamortu industrial batetan bihurtzen ari delako eta bestetik, Euskal Herriak bere etorkizuna defendatzeko

behar duen subirotasun politikoari uko egiten diolako.

Berriro, PNVren erantzunkizuna izugarria da, bere PSOErekiko elkartasunagatik eta PSOEren aginduak hitzik esan gabe jarraitzeagatik.

Euskal enpresariak (Confebask) Hego Euskal Herriko egoera industrial oso grabea dela diote (Azua Jaunak esandakoaren kontrakoa) eta Acenor salba daitekeela. Gure ustetan, Baskongadetako Gobernuak duintasun minimo bat izango balu, Acenorreko kasua bere gain hartzea exijituko luke. Gero, denon artean, instituzioek, enpresariak eta sindikatuek, euskal gizartearen premien arabera, Acenorreko etorkizuna konponduko genuke. Dena dela, eta gertatzen dena gertatzen dela, euskal langileok kontzientzatu eta mobilizatu behar dugu. Madrilgo politikan, Acenor kasua pausu bat aurrera besterik ez da. Gero, bata bestearen atzetik, gure oinarriko sektoreak eta zenbait eskualdetako industria desager daitezke. Eta industriarik gabe ez da posible berreraikuntza nazionalik. Orduan, izango luke zentrurik, independentzia, subirotasuna errebindikatzeak? Mobiliza gaitezen!

**JOSELU CERECEDA**

LAB-EKO IDAZKARITZA NAZIONALEKO PARTAIDEA

## Nafarroan Gobernua

**ALDATU** beharreko prozesu luzeegi baten ondoren badaukagu azkenean, Nafarroan Gobernua. Eta Nafarroan, diot, eta ez Nafarroako, argi dadukadalako hau ez dela Nafarroako gehiengoak nahi lukeen gobernua. Baina, politikan, eta beraz gizartean, gauzak horrela gertatzen ohi dira. Ohiegi. Zoritxarrez.

Ez dezagun ahantz, hau posible egin dutenak alde batetik Nafarroako gizon eta emakume askeak izan direla. Beren botoekin. Eta politikari guztiak berdintsuak direla dioen gizartean hain hedatu eta sustraturik dagoen sinismenaren ondorioz, beren abstentzioekin. Politikariak, agian; politika ez. Baina honetaz iharduteko izango dugu astirik.

Bestetik, alderdien interesak direla eta, sortutako joko politikoa bera. Honen froga bezala, inbestidura prozesuan eman den hainbat gertakizun azpimarratu beharra dagoela uste dut.

Alde batetik, orduan UPNko kandidatoa zen eta orain Nafarroan Lehendakaria den Alli jaunaren makiabelismo politikoa. Eta horrela, Eli Galdosek emandako ereduari jarraituz, lehen deklarazio batzutan, bera denekin mintzatzeko —eta negoziatzeko— prest zegoela esan zuen. Geroxeago, alderdiak, edo konkretuago, Del Burgok, presionaturik, errektifikatu

behar izan zuen. Gobernua lortzeko, HBren faborea segurtatu beharra zuten, bainan gauzak hain axolagabeki aitortzea gehiegizkotzat jotzen zuen azken honek. Era berean, ez hain aspaldi ere, ETArekin negoziatzearen komenigarritasuna defendatzen zuen beste UPNko batek, hau ere orain gobernuan, nahiz eta gero atzera egin behar izan zuen. Antza denez, batzuk sinistu egin zuten. Gizarajoak!

Beste alde batetik, benetan aipagarria, PSOE eta EAren arteko akordioa. HBrentzat, ez zuen inolako arazorik soluzionatzen, bainan hau HBren betiko leloa da, berak omen baitira beti konponbide bakarra. IUrentzat, akordioak PSOEren programa sozialdemokratari EAren abertzaletasun ttantak eransten zizkion, besterik ez. Nerretzat, Nafarroarendako akordiorik egokiena zen. Eta «Añamendiatarra» izanik, horrela diot, PSOEek eta EAk lortu zutena, aine!, Euskadiko Ezkerraren programa zelako. Barkatuko didazue beste disgresio bat, bainan, nik neuk orduan bultzatzen nuen bezala, EA eta EEren arteko koalizio batetan joan izango bagina azken hauteskundeetara, Nafarroak egun gobernu aurrerazale eta euskaltzale bat izango zuten, dudarik gabe.

Eta, last but not least, HBren jarrera. Pena-

garria, beren presentziak erraztu dutena: euskaltasuna bultzatu nahi dugunon kontrako gobernua, non ez Nafarroan! Ulegaitza, nahiago izatea eskuin atzerakoienak egindako gobernu eta programa bat, sozialistek eta abertzaleek osatutako baino. Ez dira HBkoak garbi atera prozesu honetatik. Aurrean dauzkagun lau urte hauetan izango dute, nahi ba dute behintzat —hala bedi!— garbitzeko okasiorik.

Zer gertatuko ote da lau urte hauetan? Ez dut nik uste Nafarroa basamortu bat bihurtuko dutenik. Ez dut uste euskaldunok desagertuko garenik gure lurretik. Ez dut uste inoiz baino gaizkiago biziko garenik. Baina lau urteko epe hau gogor eta zaila izango zaigula ziur dut. Geroa gaurdanik gertatzen hasi behar dugu. Eta Euskal Herri osoan beharrezko baldin bada, Nafarroan areago. Indarrak batuz, alderdi aurrerazale, abertzale eta demokratiko sendo bat osatzen saiatu behar dugu gaurdanik. Onuragari izango bait. Denontzat.

**KOLDO MARTINEZ**

**URIONABARRENETXEA**

EE-KO KANPO ARAZOETAKO ARDURADUN OHIA

## BERRIAK ZIRI



**JOSE LUIS PINILLOS**

Psikologoa  
DIARIO 16

«Nazka

handiena guztia antolatuta egoteak ematen dit»



**JUAN MARIA ATUTXA**

EAEko Barne Sailburua  
EL DIARIO VASCO

«Madrilekin

hartu konpromezuak bete egin behar dira»



**JAVIER POMES**

Nafarroako Gobernuko  
Ekonomia eta Hazienda  
sailburua  
NAVARRA HOY

«Nafarroak,

praktikan, Europako Komunitateko edozein Estaturen konpetentzia ekonomiko berberak izango ditu»



**FRANJO TUDJMAN**

Kroaziako lehendakaria  
EL PAIS

«Gerra ezarri

egin digute eta orain gerrako legeen arabera jokatu beharra daukagu»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

